

2396/2023 EBAZPENA, 2023ko azaroaren 13koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako errektoreordeak emana. Haren bidez, ikertzaileen lan kontratazioa egiteko hautaketa-prozesurako deia egiten da, jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez honako kontratu hau garatzeko: OTRI 20232145084, “Gasolio motorrak hidrogeno-gasolio motor, hau da, bi erregaiko motor bihurtzeko ikerketa”.

2023ko urriaren 31n, Ikerketa Zerbitzuak hautaketa-prozesurako deialdia eskatu zuen proiektu-laguntzaile gisa ikertzaileak kontratatzeko, OTRI 20232145084 “Gasolio motorrak hidrogeno-gasolio motor, hau da, bi erregaiko motor bihurtzeko ikerketa” kontratuari lotutako jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez. José Carlos Urroz Unzueta da ikertzaile arduraduna, kontratupeko irakasle doktorea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ingeniaritza Sailari atxikia.

Kontuan harturik Langileria Kudeatzeko Ataleko buruak egin duen proposamen txostena, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak ontzat eman duena.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak errektoretza-taldearen egitura orokorra onetsi eta bere funtzioak zehazteko 2023ko ekainaren 20an eman zuen 1306/2023 Ebazpenaren bidez eskuordetu dizkidan eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

Lehenbizikoa.- Onestea ikertzaileen lan kontratazioa egiteko hautaketa-prozesurako deialdia, jarduera zientifiko-teknikoak egiteko kontratu honen bidez: OTRI 20232145084, “Gasolio motorrak hidrogeno-gasolio motor, hau da, bi erregaiko motor bihurtzeko ikerketa”, baita deialdiaren oinarriak ere.

Bigarrena.- Ebazpen hau Hautaketa Batzordeko kideei eta Ikerketa Zerbitzuari aditzera ematea.

Hirugarrena.- Agindua ematea ebazpen hau Unibertsitatearen iragarki ohol elektronikoan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Francisco J. Arregui San Martín
Ikerketako errektoreordea

DEIALDIA, HAUTAKETA-PROZESUA EGITEKO IKERTZAILEEN LAN KONTRATAZIOA EGITEKO KONTRATU HAU GAUZA DEZATEN: OTRI 20232145084 “GASOLIO MOTORRAK HIDROGENO-GASOLIO MOTOR, HAU DA, BI ERREGAIKO MOTOR BIHURTZEKO IKERKETA”

Hauek dira deialdia arautuko duten

OINARRIAK

1.- DATU OROKORRAK

-Deialdiaren xedea: deialdi honen xedea ikertzaileak hautatzea da, ondoren lan kontratazioa egiteko, jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez, kontratu hau gauzatzeko: OTRI 20232145084, “Gasolio motorrak hidrogeno-gasolio motor, hau da, bi erregaiko motor bihurtzeko ikerketa”.

-Maila profesionala: proiektuko laguntzailea, batez ere ikerketa-lanetan aritzeko.

- Eginkizunak: motorrik gabeko saiakuntza-gelaxka prestatzea; saiakuntza eginen den motorra aldatzea; proposatutako motorra saiakuntza-bankuan instalatzea; datu bilketa Labviewn programatzea eta Matlaben tratatzea; emisio sentsoreak instalatzea, kalibratzea eta haietatik datuak biltzea; gasolio bidezko motorra abiaraztea; gasolio bidezko motor baten operazio parametroak aldatzea; ECU programagarria 8 injektoreren bidez programatzea; hidrogeno bidez elikatzeko sistema bat ezartzea; probak egitea aldi berean gasolioarekin eta hidrogenoarekin. ECUak programatzea; ezohiko errekuntzak aztertzea eta ezaugarritzea, eta txostenak eta ondorioak egitea.

-Kontratu mota: jarduera zientifiko-teknikoen kontratuaren modalitatearen bidez eginen da kontratazioa, Zientziari, Teknologiarri eta Berrikuntzari buruzko 2011ko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 23bis artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

- Iraupena: mugagabea, OTRI 20232145084 “Gasolio motorrak hidrogeno-gasolio motor, hau da, bi erregaiko motor bihurtzeko ikerketa” kontratuari lotua.

-Lanaldi mota: osoa.

-Ordainsariak: Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikertzaileak Kontratatzeko Arautegiak bere eranskinean ezarritakoak, 2022. urtera egokituak; arautegi hori 2017ko maiatzaren 3ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez onetsi zen, eta 2022ko apirilaren 12ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez aldatu.

Diru-gehirriak ordaintzeko aukera egonen da, proiektuan ezarritako helburuak betez gero. Diru-gehirri horiek ordaintzeko, proiektuaren arduradunak ordainketa justifikatzen duen azken txosten bat egin beharko du, eta aurrekontuan diru kopuru nahikoa izan beharko da.

-Finantzaketa: 20232145084 OTRI kontratua.

-Argitaratzeko tokiak: deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gainera, deialdiarekin lotutako egintza eta ebazpen guztiak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki ohol elektronikoan argitaratuko dira.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

2.1.- Hautaketa-prozesuan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako herritarra izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa izatea edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiar Estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen batekoa.

Halaber, Espainiako, Europar Batasuneko estatuetakoa eta aipatu nazioarteko itunak aplikatzen diren eremuko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek parte hartzeko aukera dute, betiere zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude; herritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere parte hartzeko aukera dute, zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude, baldin eta 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Halaber, aurreko paragrafoetan sartuta ez dauden herrialdeetakoak izan eta Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrek administrazio publikoetako lan kontratupeko langile aritzeko aukera izanen dute. Espainian bizi ez diren atzerritarrek parte hartzeko aukera izanen dute, betiere parte hartzeko betekizunak betetzen badituzte. Kasu horretan, atzerritarrei buruzko legeek eskatzen dituzten baimenak lortu beharko dituzte kontratazioa egin ahal izateko.

b) 18 urte baino gehiago izatea, eta erretiro adina betea ez izatea.

c) Ingeniaritza Mekanikoko Graduak edo Industria Teknologien Ingeniaritzako Graduak titulazio akademiko ofiziala edo haien baliokideak.

d) Deialdiko xede diren lanpostuak betetzea galarazten duen gaixotasunik edo muga fisikorik edo psikikorik ez edukitzea.

e) Diziplinako espediente baten ondorioz edozein administrazio publikotako zerbitzutik baztertua ez izatea, eta ez egotea epai irmo baten bidez ezgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

2.2.- Aurreko arauetan ezarri diren baldintzak eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean bete beharko dira, eta kontratazioa egin arte beteko dira.

3.- ESKAERAK

Eskabideak aurkezteko epea 10 egun balioudun igaro ondoren bukatuko da, deialdi hau **Nafarroako Aldizkari Ofizialean** argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hautaketa-prozesu honetarako **inskripzioa telematikoki** egin beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren goitza elektronikoaren bidez, helbide honetan:

<https://sedeelectronica.unavarra.es/sede/zerbitzu-katalogoa/guztiak/ikertzaileen-hautaprobak>

Lehenik, “**Hasi tramitea**” botoia sakatu behar da.

“**Erantsi fitxategiak**” eremuan, dokumentu hauek erantsi beharko dira lanpostu kategoria bakoitzerako:

- Parte hartzeko eskabidea.
- Nortasun Agiri Nazionalaren, AIZren edo pasaportearen fotokopia.
- Deialdian eskatzen den tituluaren fotokopia.
- Espediente akademikoaren fotokopia, batez besteko nota zehaztuta.
- Curriculum vitae, norberak egoki jotzen dituen merezimenduen egiaztagiriek batera.

Parte hartzeko eskabide eredu esteka honetan dago:

<http://www2.unavarra.es/gesadj/registroGeneral/instancias/recursos-humanos/contratacion-personal-investigador.pdf>

4.- IZANGAIEN ONARPENA

4.1.- Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da, baztertua izateko arrazoiak esanez, baztertuen kasuan. Izangai bazterturik ez bada, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

4.2.- Hirugarren oinarriak aipatzen dituen dokumentuak ez aurkezteagatik behin-behinean baztertzea galarazi gabe, eskaera epez kanpo aurkeztea edo lehiaketaren bidez lortu nahi den lanpostua betetzeko bete behar diren baldintzak ez betetzea baztertzeko arrazoiak izanen dira, eta, gainera, ezin izanen dira zuzendu.

4.3.- Izangai baztertuek edo zerrendan azaldu ez direnek zilegi dute erreklamazioa egitea eta, akatsen bat badago, akatsak zuzentzea, behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo 5 egun balioduneko epean. Ezartzen den epean baztertuak izateko arrazoiak konpontzen ez duten izangaiak behin betiko baztertuko dira, eta ez dute probarik egingen.

4.4.- Erreklamazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

4.5.- Izangaiak hautaketa-prozesuan onartuen zerrendan egoteak edota 6.2 oinarriak aipatzen duen hautaketa-prozesua gaingitu dutenen zerrendan egoteak ez du ekarriko inoiz ere unibertsitateak aitortzea betetzen dituztela deialdiko oinarrietan eskatu diren baldintza orokorrak edo bereziak. Kontratatzeko deitzen dituzten izangaiek ziurtatu eta egiaztatu beharko dituzte horiek, jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko baitute kontratua sinatzen dutenean.

4.6.- Parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioarekin alderaturik jatorrizko dokumentazioa okerra edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, kontratua sinatzeko

ezintasuna eta kontratazio zerrendatik baztertzea ekarriko du, interesdunak berak sinatuko duen erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorritz.

5.- HAUTAKETA-PROZESUA

Izangaien merezimenduak baloratuko dira, aurkeztutako dokumentazioarekin bat etorritz eta I. eranskineko baremoaren arabera.

Izangaiek eskabideak aurkezteko epea bukatzean dituzten merezimenduak bakarrik baloratuko dira, eta gero lortutakoak ez dira kontuan hartuko. Hautaketa Batzordeak inola ere ez du onartuko izangaiek alegatu ez duten edo agirien bidez frogatu ez duten merezimendurik, eta ezin izanen du apartatu bakoitzean adierazitako gehieneko puntuazioa baino handiagorik eman.

Adierazten diren merezimendu guztiak zuzenbidean baliozkoa den edozein baliabideren bidez frogatu behar dira.

Hautaketa Batzordeko kide bakoitzak baloratuko ditu izangaien merezimenduak. Azken puntuazioa izangai bakoitzari emandako puntuazioen batezbestekoa izanen da.

6.- HAUTAKETA-PROZESUAREN EBAZPENA

6.1.- Izangaiek aurkeztutako merezimenduen balorazioa amaitu eta gero, Hautaketa Batzordeak Ikerketako errektoreordeari bidaliko dio hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazioekin.

6.2.- Ikerketako errektoreordeak ebazpena emanen du hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda onesteko, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki ohol elektronikoa argitaratuko da.

6.3.- Deialdi honetan sortzen den kontratazio zerrendak 3 urteko indarraldia edukiko du argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Indarrean dagoen bitartean, kategoria bera eta ia eginkizun berak dituzten langileak kontratatzeke premia sortzen denean ere erabiltzen ahalko da kontratazio zerrenda hori, proiektu, kontratu, hitzarmen edo katedra baterako edo institutuko edo ikerketa-taldeko funtsetarako izan, betiere hurrenkera ordena errespetatuz.

6.4.- Deialdi honen ondoriozko kontratazio zerrendan egonik kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste edozein lanpostutarako kontraturik eskainiko. Dena dela, eskainiko zaie baldin eta kontratua bukatzeko 15 egun edo gutxiago gelditzen badira.

7.- HAUTAKETA-BATZORDEA

Batzordeburua: Pedro María Diéguez Elizondo doktorea, unibertsitateko katedraduna, Ingeniaritza Sailari atxikia, Ikerketako errektoreordeak delegatuta.
Idazkaria: José Carlos Urroz Unzueta, kontratupeko irakasle doktorea, Ingeniaritza Sailari atxikia.

Batzordekidea: Pedro María Villanueva Roldán doktorea, kontratupeko irakasle doktorea, Ingeniaritza Sailari atxikia.

ORDEZKO HAUTAKETA-BATZORDEA

Batzordeburua: Luis María Gandía Pascual doktorea, unibertsitateko katedraduna, Ingeniaritza Sailari atxikia.

Idazkaria: Sara Marcelino Sadaba andrea, unibertsitateko irakasle titularra, Ingeniaritza Sailari atxikia.

Batzordekidea: Marta Benito Amurrio doktorea, unibertsitateko irakasle titularra, Ingeniaritza Sailari atxikia.

Hautaketa Batzordearen jarduerak, une oro, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezartzen dutenaren arabera gauzatuko dira. Jakinarazpenak egiteko eta bestelako gorabeheretarako, Hautaketa Batzordearen egoitza Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazioko eta Kudeaketako eraikina izanen da.

8.- DATU PERTSONALEN BABESA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak langileen kudeaketaren arloan antolatutako prozesuetan parte hartzeak interesdunen datuak tratatzea ekarriko du berekin. Datu horien tratamenduaren arduraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoa da.

Datuen tratamendua aplikatzekoa zaion araudiari jarraikiz egingen da, hots, Datuak Babesteko 2016/679 EB Erregelamendu Orokorrari eta Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz. <http://www.unavarra.es> webgunean argitaratutako Tratamendu Jardueren Erregistroan kontsulta daiteke nola egingen den tratamendu hori, "GIZA BALIABIDEAK" atalean.

Tratatuko diren datuak batez ere hautaketa-prozesuetako izangaiak eta NUPeko langileenak izanen dira; hauek hain zuzen ere: izena, deiturak, NANA, datu akademikoak eta profesionalak eta, beharrezkoa denean, bankuko datuak eta Gizarte Segurantzakoak, edo ondoren deskribatzen den xedea betetzeko beharrezkoak direnak.

Datuen tratamendua justifikatzen duen xedea hau da: hautaketa-prozedurak, mugikortasunekoak, egoera administratiboak, ziurtagiriak, edo Giza Baliabideen arloan NUPen eskumenekoak diren beste batzuk tramitatzea.

Xede horrek interes publikoa edo botere publikoa legitimatzen du, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua ezartzen duen bezala. Hauek dira oinarri juridikoak, langileei buruzko beste arau batzuen artean: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2015eko urriaren 30ekoa, eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzura dauden Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, 1993ko abuztuaren 30ekoa.

Datuak tratatzeko jardueri dagokienez, interesdunek eskubidea dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, haiei kontra egiteko eta transferitzeko. Horretarako, mezu bat bidali behar dute delegado.protecciondatos@unavarra.es helbidera, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 11. artikulutik 18. artikulura bitartekoei jarraikiz. Desadostasunen bat izanez gero, Datuak Babesteko Espainiar Agentziara jo dezakete, <https://www.aepd.es/> domeinuaren bidez.

9.- ERREKURTSOAK

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, Unibertsitate Sistemari buruzko 2023ko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 38.4 artikulua xedatzen duenaren arabera, eta zilegi da berraztertze errekurtsoa jartzea, errektoreari zuzendua, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, hilabeteko epean lehenbiziko kasuan, eta bi hilabeteko epean bigarrenean, biak ere ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

I. ERANSKINA

Ikertzaileak hautatzeko baremoa

ERABILIKO DEN BAREMOA ETA/EDO EGINEN DIREN PROBAK	
1. APARTATUA: Espediente akademikoa	Puntuak 20
Hautaketa-prozesu honetara sartzeko titulazioaren espediente akademikoa proportzionalki baloratuko da, 10 punturekin gehienez ere. Garatu beharreko jarduerekin lotutako gaietan GALa egin izanagatik. Gehienez ere 10 puntu emanen dira, zer lotura duten proiektu honen xede diren jarduerekin.	
2. APARTATUA: Proiektuaren gairako prestakuntza osagarria	Puntuak 30
a) Proiektuaren gaiarekin zerikusia duten masterreko ikasketak. 10 puntu gehienez ere. b) Proiektuaren gaiarekin lotutako lanbide heziketako goi mailako ikasketak. 10 puntu gehienez ere. c) Ingelesa jakitea: CRUE Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak jasotako mailen arabera baloratuko da: 2 puntu (B1 maila), 3 puntu (B2 maila) eta 5 puntu (C1 maila edo hortik gorakoa). d) Beste merezimendu batzuk: proiektuarekin lotutako programa informatikoak, ikastaroak edo mintegiak ezagutzea. (Programas: SolidWorks AutoCAD, MarcMentat, Ansys Software, Word, Excel eta PowerPoint). 5 puntu gehienez ere.	
3. APARTATUA: Lan esperientzia	Puntuak 5
Lan esperientzia honela baloratuko da: proiektuko eginkizunekin lotura zuzena duten lan esperientziako urte bakoitzeko: 3 puntu urte bakoitzeko. Urtebetetik beherako denbora-tarteengatik puntuazio proportzionala emanen da.	
4. APARTATUA: Beste merezimendu batzuk	Puntuak 10
a) Proiektuko eginkizunekin zerikusia duten aldizkari zientifikoetan artikulua argitaratzeagatik: 5 puntu gehienez ere, aldizkariaren inpaktu indizearen eta proiektuko eginkizunekin duen zerikusiaren arabera. c) Lankidetzak-jaso izana proiektuarekin zerikusia duten gaietan. 5 puntu gehienez ere.	
5. APARTATUA: Elkarrizketa pertsonala	Puntuak 25

Aurreko lau apartatuen baturan puntuazio handiena lortu duten 3 izangaiei elkarrizketa egingen zaie.

Izangaia deialdi honen kontratuan gauzatu behar diren jardueretarako zer gaitasun duen aztertzea da elkarrizketaren helburua.

Hautaketa-prozesua gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa 45 puntu da.

Hautaketa-prozesuaren azken emaitzan gerta daitezkeen berdinketak 5. APARTATUAN puntuazio handiena atera dutenen alde ebatziko dira. Berdinketa badago, 2. APARTATUAN puntuazio handiena lortzen dutenen alde. Berdinketak jarraitzen badu, hautaketa-prozesua zozketaz erabakiko da.